



ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ DEKLARATZEN BAITA LOIOLAKO HIPIKA KIROL ELKARTEAREN LEHENDAKARI *** JAUNAK GIPUZKOAKO HIPIKA FEDERAKUNTZAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAK 2016ko URRIAREN 21ean HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOAN PROZEDURAREN XEDEA GERORA DESAGERTU EGIN DELA.**

Espedientea: 29/2016 zenbakia

AURREKARIAK

LEHENA.- Loiolako Hipika Kirol Elkartearen lehendakari ***** jaunak Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 21ean hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsoa iritsi zen Kirol Justiziako Euskal Batzordera 2016ko urriaren 27an. Hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiaren bitartez, ezetsi egin zen aipatutako kirol-elkartek aurkeztutako errekurtsoa, elkarte hori klub en eta kirol-elkarteen estamentuaren erroldan ez sartzeari buruzkoa.

Bere errekurtsio-idazkian adierazten du «*Webgunean ez dagoela argitaratuta hauteskunde-deialdia eta kirol-elkarte honi ez zaiola dokumenturik bidali hauteskunde-prozesua hasi dela jakinaraziz*». *Documento alguno informando del inicio del proceso electoral*>>.



BIGARRENA.- Urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarrituta, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsio horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espediente eskatu zion Gipuzkoako Hipika Federakuntzari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzen jotzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanez.

HIRUGARRENA.- 2016ko azaroaren 30ean, Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-batzordeak 2016ko azaroaren 29an emandako ebazpenaren jakinarazpena iritsi da Kirol Justiziako Euskal Batzordera. Ebazpen horretan honako hau adierazten da hitzez hitz:

«Kirol Justiziako Euskal Batzordean dagoen errekurtsioa –prozesua webgunean argitaratzerakoan dauden hutsuneen aurka dagoena– aztertu ondoren, kalterik ez eragiteko eta nahiz eta uste izan hedapena prozesu horretan parte hartu ahal izateko adinakoa izan zela; hala ere, erabaki da hura hauteskunde-errolan argitaratu ziren eta hura aurkaratzeko epea ireki zen unera arte atzera eramatea eta une horretatik aurrera hauteskunde-egutegi berri bat onartzea eta administrazio-zerbitzuei agintzea beren webgunean argitara dezatela, eta horrez gain, euskal federaziora eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidal dezatela».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ekainaren 11ko Euskadiko kirolari buruzko 14/1998 Legeak 138. artikuluan, eta aipatutako batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak 3. artikuluan emandako eskumenak ditu.



Kirol-federazioen hauteskundeei dagokienez, aipatutako 14/1998 Legearen 138.b) artikuluari eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikuluari jarraituz, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumena da «*Kirol-federazioetako hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsok aztertzea eta ebaztea*».

BIGARRENA.- Errekurtsogileak, Loiolako Hipika Kirol Elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz, bere errekurtsu-idazkian adierazi du ez dagoela ados hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiarekin, hau da, kirol-elkarte hori klubaren eta kirol-elkarteen estamentuaren eroldan ez sartzeko erabakiarekin. Erabaki hori justifikatzeko adierazten da lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 32.a) artikuluan azaltzen den eskakizuna ez dela betetzen. Eskakizun hori honako hau da: Gipuzkoako Hipika Federakuntzak antolatutako jardueraren batean parte hartu izana.

Errekurtsu-idazkian adierazten da hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 25ean jakinarazi zuela errekurtsua ezetsi egin zela «*indarreko hauteskunde-arautegian azaltzen den eskakizuna, hots, Gipuzkoako Hipika Federakuntzak antolatutako jardueraren batean parte hartzeko eskakizuna, ez betetzeagatik*». Ezin izan da egiaztatu jakinarazpen hori aipatutako egunean egin zenik.

Lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 25. artikulua arabera, hauteskunde-batzordearen erabakien aurkako errekurtsok, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen eskumenekoak direnak, bi egun balioduneko epean jarri behar dira. Horregatik, hauteskunde-batzordeak errekurtsua ezesteko hartutako erabakiaren jakinarazpena 2016ko urriaren 25ean egin bazen, kontuan hartuta errekurtsua 2016ko urriaren 27an sartu zela Kirol Justiziako Euskal Batzordean, errekurtsua hauteskunde-araudian ezarritako epearen barruan jarri da kide anitzeko organo honetan.



HIRUGARRENA.- 2016ko azaroaren 30ean, Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-batzordeak Kirol Justiziako Euskal Batzorde honi jakinarazi dio hauteskunde-prozesua berriro hasteko erabakia hartu duela.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikulua araber, «*Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.*

Preskripzioa, eskubideari uko egitea, prozedura iraungitzea edo eskaeran atzera egitea gertatzen denean, eta orobat prozeduraren xedea gerora desagertzen denean, kasuan-kasuan gertatutakoa adieraztea izango da ebazpena, jazotako egitateak eta aplikatzekoak diren arauak zehaztuta».

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ACUERDA

Loiolako Hipika Kirol Elkartearen lehendakari ***** jaunak Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 21ean hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsioan prozeduraren xedea gerora desagertu dela deklaratzeko. Horrenbestez, jardunak artxibatu egin dira.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean,



erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL
KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN LEHENDAKARIA